



# Udal agiria ATAUN

## **ATAUNGO UDALA B@KQ TXARTELAREN TRAMITATZAILE**

*B@k identifikazio elektronikoko bitarteko berri bat da.*

*Oso erabilerraza da eta aukera ematen digu administrazioekin telematikoki harremanetan jartzeko.*

*B@k-ek bi maila edo bertsio ditu.*

*Bata oinarrizkoa da, kritizitaterik gabeko izapide eta zerbitzuetarako. B@kQ, berriz, maila altuagokoa da, gure transakzioetan segurtasun handiagoa bermatzen digu, baina bestea bezain erabilerraza da.*

*B@kQ eskatzeko, modu presentzialean identifikatu behar duzu zure burua.*

*B@k-rekin eta B@kQ-rekin, euskal administrazioetako hainbat zerbitzutan online kontsultak eta izapideak egin ahal izango dira.*

*B@kQ txartela lotuta dago Izenpe entitate ziurtatzaileak emandako ziurtagiri kualifikatu batekin, eta, bertan sartzeko, faktore hauek erabiltzen dira: erabiltzailearen identifikazioa (NAN/AIZ), pasahitz bat eta 16 posizioko koordinada joko bat (edo itsasontzi joko bat).*

*B@kQ erabilia, honako hauekin jardun daiteke:*

*-Gipuzkoako Foru Aldundiko zerbitzu elektronikoko guztiekin (Gipuzkoatariaren bidez).*

*-Euskal administrazio guztiekin. Organismo bakoitzaren webguneak kontsultatu daitezke, B@kQ sinadura erabiltzeko aukera guztiak zehazki ezagutzeko.*

## **ATAUNGO KULTUR ONDAREAREN BILERA**

*Irailaren 12an, 19:30ean izango dugu Ataungo Kultur Ondarea balioan jartzearen hurrengo bilera udaletxeko Pleno Aretoan. Herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu denon artean Kultur ondare oparo bat osatzeko.*

Ataunen, 2018ko irailaren 6an  
ALKATE-LANETAN,

